



Biodibertsitatea arriskuan

Gero eta soia gehiago hegoaldeko konoan: Uruguaiako kasua,
Agraren bultzada teknologikoa Afrikan, Ur-Eskubidea Palestinan: Testuingurua.





aurkibidea

- 4 Gero eta soia gehiago hegoaldeko konoan:
Urugaiko kasua
- 10 Agraren bultzada teknologikoa Afrikan
- 16 Ur-Eskubidea Palestinan: Testuingurua



EWNI ,Amigos de la Tierra Inglaterra, Gales e Irlanda del Norte

Gero eta soia gehiago hegoaldeko konoan: Urugaiko kasua¹

¹ Egile berberen liburuaren laburpena: “Radiografía del Agronegocio sojero: descripción de los principales actores y los impactos socio-económicos en Uruguay”, 2011ko bertsio eguneratua, REDES-Amigos de la Tierra erakundeak argitaratutakoa.

NEKAZARITZAREN MUNDUKO TESTUINGURUA

Nekazaritzaren gaia nekazaritza-ekonomiako balioaren legea orokortzeko esparruan kokatu behar da, eta honako hauek dira ondorio nagusiak: eskalako ekonomiak, ekoizpenaren metaketa, ekoizpen-prozesuen estandarizazioa, intsumoen teknologien etengabeko ezarpena, soldatapeko lanaren orokortasuna eta landa-ingurunekeo biztanle-kopuruaren jaitsiera (Astarita, 2008).

Kapitalak nekazaritza aurrera egiteko prozesuaren ondorioz, gaur egungo agronegoziora sortu da, eta, bertan, planeta osora zein nekazaritza-industriako fase guztietara hedatu diren enpresa transnazionalak dira nagusi. Aleei dagokienez, Monsanto, Bayer, BASF eta Syngenta korporazioak nabarmentzen dira intsumoen ekoizpenaren fasean (haziak, biozidak, ongarriak); eta Cargill, ADM, Bunge eta Louis Dreyfus korporazioak, aleak merkaturatzeko eta prozesatzeko fasean.

Bestetik, kapitalaren gorakada horretan azpimarratu egin behar da nolako lan-banaketa sortzen den nazioartean. Hego Amerikan, batez ere, prozesu horren ondorioz munduko gune industrialentzako lehengaien hornikuntza espezializatzen dira ekonomiak, eta esportaziorako nekazaritza lehenesten da berriro.


SOIAREN MUNDUKO ETA ESQUALDEKO ESPARRUA

Duela 40 urtetik hona, soiaren azalera eta ekoizpena azkar baino azkarrago hazi dira. 1964. urtean, 40 milioi tona metriko ekoizten ziren; eta, 2010ean, ia-ia 258 milioi tona. Oraindik ere AEB soia-ekoizpenaren sustatzaile nagusia badira ere, 80ko hamarkadaren erdialdetik Brasilek, Argentinak, Txinak eta Indiak askoz partaidetza handia-

goa dute ekoizpenean (1. grafikoa).

Ekoizpenaren eta merkataritzaren munduko banaketaren arabera, herrialdeen zereginak desberdinak dira, eta nazioarteko lan-banaketa da horren adierazgarri. Hegoaldeko konoko nazioak herrialde nagusien menpe daudenez, soia-alearen zein bere eratorrien esportazioan dauden espezializatuta, eta barne-kontsumoa hutsaren hurrengoa da ia-ia. AEBek, ordea, barne-merkatua hornitzen dute lehenbizi, eta, ondoren, kontsumitu ez dena esportatzen dute. Europa, esaterako, prozesatzeko aleen edo prestatutako produktuen (olioa eta irina) inportatzaile argia da, eta Txinak herrialdean industrializatzeko aleak inportatzen ditu.

1. Grafikoa. Soia-ekoizpenaren eta ekoizle nagusien bilakaera



Prozesu hori bi arrazoiren bidez azaldu daiteke. Hain zuzen ere, soia-alearen eta bere eratorrien prezioen goranzko joera ia-ia etengabea izan da faktore nagusia, eta, aldi berean, funtsezko hiru elementu hauek ere hartu behar dira kontuan: (1) Europar Batasunean, Txinan eta Indian haragiaren ekoizpen intentsiborako intsumo moduan erabiltzen duten soia-irinaren eskaria gero eta handiagoa

² Nekazaritzako ingeniaria, Errepublikako Unibertsitateko irakaslea. e-posta: gaboyha@yahoo.com.ar

³ Nekazaritzako ingeniaria, Errepublikako Unibertsitateko irakaslea. e-posta: nachonar@gmail.com

da; (2) agroerregaien ekoizpena gero eta biziagoa da; eta (3) gero eta kapital finantzario gehiago bideratzen dira nekazaritza-sektorerantz. Hona hemen Hegoaldeko Konoko soiaeren ekoizpenaren hedapenean eragina izan duten beste faktore batzuk: ereintza zuzena / glifosatoa / RR soia sorta teknologikoa hedatu da; Hego Amerikako herrialdeetako baldintzak oso egokiak dira (baliabide naturalak, lurra eta laneku merkea) eta egonkortasun instituzionala oso egokia da negozio-giroari begira.

Era berean, Chicagoko Baloreen Burtsaren zeregina ere hartu behar da kontuan, munduko soia-merkataritzan gehien erabiltzen den transakzio-mekanismoa da-eta. Horri esker, soiaeren kontratuak erosteko eta saltzeko prest dauden espekulazio-eragileek euren eragiketak egiten dituzte, inguruabarren arabera prezioetan gertatutako aldaketei etekina atera nahian. Beraz, likidezia handiko negozioa denez, gaur egun etorkizuneko merkatuan egindako transakzioen kopurua munduko soia-uzta baino 25 aldiz handiagoa da.

GERO ETA SOIA GEHIAGO DAGO URUGUAIN

Soiaeren azaleraren hazkuntza esponentziala izan da Uruguai, 2002-2003an 10.000koa zelako eta 2010-2011n 862.000koa izan delako. Hain zuzen ere, nazioz harandiko eta eskualdeko enpresa-eragileak iritsi dira, eta, gaur egun, lehen fasearen zein metaketaren zati handiena kontrolatzen dutenez, soia gintza oso-oso kontzentratuta dago bere fase guztietan.

Nekazaritzako fasean, aldaketa handienak gertatu dira, ereintzako poolak iritsi direnetik. Argentinako enpresak dira, eta lurralde-zabalkuntzaren nahiz Uruguaiko zerga-erraztasunen ondorioz iritsi ziren herrialdera. “Nekazari berri” horiek ekoizleen %12 dira gaur egun, eta nekazaritzako laborantzen azaleraren %57 kontrolatzen dute (Arbeletche eta Gutiérrez, 2010). Honako hauexek dira enpresa nagusiak: El Tejar (Tafilar, Uruguain), Agronegocios del Plata (Los Grobo Taldekoa), MSU, Perez Companc (Garmet, Uruguain), Cosechas del Uruguay, Villa Trigo (Barraca Errokoa), Ceres Tolvas eta AdecoAgro. Batez ere, “nekazaritzako kudeatzaileak” (Arbeletchek eta Carballo (2008) proposatutako tipologiaren arabera, azpimotatzen hartzen dituzte “nekazari berrien” barruan) enpresa ar-

gentinarra dira, eta 400.000 hektarea baino gehiago dituzte kontrolpean.

Fase industrialia ez dago oso garatuta herrialdean. Beraz, ekoizpen osoaren %90 baino gehiago ale moduan esportatzen da, eta %5 baino gutxiago industrializatzen da (gainerakoa hazitarako gordetzen da). Uruguai, ordea, soiaeren eratorri nagusiak inportatzen ditu oraindik (irina eta olioak). 2010ean, metaketaren zein esportazioaren fasean, sei konpainia handienek esportatutako soiaeren kopuruaren %70 pilatu zuten. Fase horretan, hain zuzen ere, soiak “global playerrek” jarduten dute: Cargill, ADM, Bunge eta Louis Dreyfus.

GIZARTE ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAK

Soiaeren agronegozioak aurrera egin ahala, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren gaineko zenbait eragin sortu dira, eta ez datoz bat soiaeren aurrerakuntzaren ondorioz sortutako hazkuntza ekonomiko adierazgarriekin. Hona hemen zenbaiten garapena.

Zerga-ekarpina oso urria da. Tamblarren (2011) zenbatespenen arabera, 2010ean nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreak 228 milioi US\$ ordaindu zizkion zerga-ogasunari, hau da, nekazaritzako eta abeltzaintzako BPGren %6-%7, ekonomia osoak (kontsumitzaileak barne) BPG nazionalan daukan ekarpena %30,4koa denean (Tambler, 2009).

Lurzoruen higadura fisiko eta kimikoa handia da. Etengabeko nekazaritzarako joera da nagusi. Hori dela eta, laborantzen eta bazkalekuen arteko ohiko txandaketak alda batera utzi dituztenez eta laborantzen sekuentzietan soia oso sarritan agertzen denez, lurzoruak higitzeko arriskua oso handia da. Horren osagarri, kalkuluak kontuan hartuta, ongarritzeko metodo nagusien arabera, 2005-2006tik 2009-2010era nitrogeno-defizit eutsia dago lurzoruetan, eta hori berreskuratzeko kostua 13,6 eta 47,3 milioi US\$ artekoa izango litzateke, hau da, laborantzen marjina gordinaren %14,9 eta %35,5 artean.

Gero eta ohikoagoa da familia ekoizleak kanporatzea eta produktu-mota batzuk ekoizten hastea. Mendebaldeko itsasertzean, 2000tik 2009ra, ia-ia 600 familia nekazarik utzi zuten nekazaritza. Horren ondorioz, nekazaritzarako azalera %15etik %6ra jaitsi zen. Aldi berean,

soiak aurrera egin ahala, beste produktu-mota batzuek behera egin dute: 2002-2003tik 2008-2009ra, ekilorearen azalaren murrizketa 120.000 hektareakoa izan zen; nekazaritza zein abeltzaintzako eremuetako bazkalekuena, 180.000 hektareakoa; eta esnegintzarena, 180.000 hektareakoa.

Oso lanpostu gutxi sortzen dira. Soiaren agronegozioaren teknifikazio-maila handia denez, ez da laneku askorik behar. Soia-nekazaritza teknifikatuaren artean, lanpostuen sorrera 2,8 langilekoa da 1.000 hektareako (Arbeletche et. al., 2008). Nekazaritza estentsiboa hedatzean sortutako lanpostuak (5-7 lanpostu 1.000 ha-ko) eta nekazaritzarako (5 lanpostu 1.000 ha-ko) zein esnegintzarako (19 lanpostu 1.000 ha-ko) azalera murriztean galdutako lanpostuak erkatuz gero, balantzeko galera 2.000tik gora lanpostukoa da nekazaritza-fasean, gutxi gorabehera.

Azkenik, sektorean sortutako **aberastasuna banatzeko** orduan, soldata-masaren pisua murriztu da, 2005-2006an soiaren BPG %8koa zelako; eta, 2008-2009an, %5ekoa. Bestetik, “nekazari berriek”, hau da, 2009-2010ean gutxi gorabehera 493.000 hektarea soia erein zuten 150 ekoi-zlek, 53,2 milioi US\$ irabazi zituzten. Testuinguru horretan, gainera, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorearen hazkuntza ekonomikoa ekoizpen-baliabideen jabeen mesederako izan da, batez ere (PNUD, 2008).

LURRAREN ALDEKO ERASOA

Soiaren hedapena beste fenomeno batekin dago lotuta: **lurra gutxi batzuen eta atzerritarren esku dago, batik bat.** Mundu zabalean gertatutako fenomeno horrek adierazpide bereziak ditu eskualdean eta Uruguain bertan.

Hego Amerika lur-erosleek planetan gustukoaren dituzten eremuetakoa da. Munduko Bankuaren arabera (2010), hegoaldeko konoko herrialdeetan ia-ia 100 milioi hektarea daude eskuragarri: 45 milioi, Brasilen; 29,5 milioi, Argentinan; 9,3 milioi, Uruguain; 8,3 milioi, Bolivian; eta 7,3 milioi, Paraguain. Hego Amerikan “eskuragarri” dagoen azalera guztia kontuan hartuta, 36 milioi hektarea oso egokiak dira soiaren laborantzarako. Prozesu horren ondorioz, luraren banaketa bidegabea areagotzen da, eta, munduko eremu horretan, hain zuzen ere, baliabide hori oso-oso txarto banatuta dago, Gini Indizea 0,9koa da-eta

(Munduko Bankua, 2010).


Eskualdeko testuinguruan, inbertsiogile handientzako helmuga interesgarrietakoa da Uruguai. Ezaugarri agroekologikoak ditu (lurzoru emankorrak, euri-araubide erregularra, tenperatura epelak), luraren prezioak merkeagoak dira Brasilen zein Argentinaren aldean eta lur asko daude eskuragarri.

Soiaren agronegozia hedatzean, lurra eta ekoizpena gutxi batzuen eta atzerritarren esku pilatu dira. Nekazaritzan bertan, joera hori bizi-bizia izan da azken urteotan. 1.000 hektarea baino gehiago dituzten nekazariak azaleraren zati txikia kontrolatzen zuten 2000-2001ean, baina ia-ia %75 kontrolatzen zuten 2009-2010ean. Prozesu horretan, “nekazari berriak” dira nagusi, 2000tik 2009ra inon ageri ez baziren ere, ekoizleen %12 dira gaur egun, eta nekazaritzako laborantzen azalaren %57 kontrolatzen dute. Soiaren laborantzan, pilaketa ere handi-handia da. Muturreko kasu batean, 2007an soia-ekoizleen %1ek 2007an ereindako eremuaren %37 zuten kontrolpean (Arbeletche eta Carballo, 2008).

Soiaren hedapenak lurra atzerritar bihurtzeko prozesua suspertu du. Historiari begira, fenomeno horrek lurraldearen %10 gainditu ez bazuen ere eta herrialdean bertan bizi ziren atzerritarrak inplikatzen bazituen ere, azken urteotan aldaketa handiak gertatu dira, agronegozioek aurrera egin dutelako nekazaritzako eta abeltzaintzako zenbait produktu-motatan (oihaneztapena, soia, abeltzaintza, arrosa). 2000tik 2007ra, 1,7 milioi hektarea soizietate anonimoen esku geratu ziren (DIEA, 2008). Oro har, gainera, soizietate horiek atzerritarrak direnez, uruguaiarrek azalera beraren jabetza galdu zuten.

Nekazaritzan kapitalak aurrera egin duenez, Uruguaiako lur-baliabidearen balioespena hazi eta hazi egin da. Hori dela eta, errentak gora egin du, eta saldutako azalera nabarmen gehitu da. Estatistika ofizialen arabera (DIEA, 2011), 2000tik 2010era, 6,4 milioi hektarea merkaturatu ziren, hau da, lurralde nazionalaren %33 baino gehiago. Salerosketetan, luraren batez besteko prezioa bost aldiz handitu da, 2000. urtean hektareako 450 US\$-koa zelako; eta, 2010ean, hektareako 2.600 US\$-koa (2. grafikoa). Gehikuntza hori oso-oso garrantzitsua da termino historikoei begira, 40 urteren ostean luraren prezioak hektareako 500 US\$ gainditu zuelako (Piñeiro, 2010).

Gráfico 2. Evolución del precio promedio para arrendamientos y compra de tierra del 2000 al 2010.



Iturria: DIEAren arabera egindakoa (2011).

Gauza bera gertatu zen alokairuen merkatuan. Epe berean, gehikuntza handiak egon ziren alokatutako azaleran (2008an, 1.100.000 hektareakoa zen), eta lurraren errenta bost aldiz handitu zen ia-ia (DIEA, 2011) (2. grafikoa).

Lurraren errentaren gehikuntza eutsirako joera horretan, bi ondorio nagusi agertzen dira. Batetik, izaki sozial berria sortu da, “errentaduna”, hau da, prezio handiak kontuan hartuta, bere lurak errentan jartzea erabakitzen duen ekoizlea, soia-enpresa handiek ustiatu ditzaten. Bestetik, lurraren inguruko lehia areagotu egiten da, nahiz eta testuinguru horretan baliabide horren banaketa oso desberdina izan. Beraz, landa-inguruneke mendeko sektore, familia nekazari eta soldatapekoentzat askoz zailagoa izango da lurra eskuratzea.

AZKEN HAUSNARKETAK

Soiaren agronegozia sendotzean, zenbait prozesu azkartu dira; esate baterako, kapitalaren ordeztu lana sustatu da, lanpostu gutxiago sortzen dira, ekoizpena pilatuta dago eta, horren ondorioz, ekoizle txikiak lekualdatu egin behar dira. Hori dela eta, landa-ingurunea husteko joera

areagotu da. Horrexegatik, aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da, lehen mailako ekoizpen-egitura sendotu da eta mendeko ezarpenera dauka nazioarteko merkatuan. Oro har, agronegozio transnasionalek nekazaritzan bertan aurrera egin dutenean, are gehiago nabarmendu da sistema kapitalistaren funtsezko ezaugarria: ondasun materialen ekoizpena eta giza premien estaldura ez datoz bat.

BIBLIOGRAFIA

ASTARITA, R. 2008. Globalización y desarrollo capitalista en el agro. On line. Hementxe dago irakurgai: www.rolandoastarita.com

ARBELETCHÉ, P. eta CARBALLO, C. 2008. La expansión agrícola en Uruguay: alguna de sus principales consecuencias. Hementxe aurkeztutako lana: Eskualdeko 2. Biltzarra, Rio de la Platako 3. Biltzarra eta Nekazaritzako Ekonomiaren Urteko XXXIV. Bileran. 2008ko azaroa.

ARBELETCHÉ, P.; FERRARRI, J. M. eta SOUTO, G. 2008. La expansión de la soja en Uruguay: una aproximación a sus impactos socio-económicos. (Koord.) Jorge Escudero. Uruguaiako Lehen Soia Topaketako Oleaginosoen Mahai Teknologikoan aurkeztu zen. 2008ko iraila.

ARBELETCHÉ, P. eta GUTIÉRREZ, G. 2010. Crecimiento de la agricultura en Uruguay: exclusión social o integración económica en redes. Argitaratu gabea. 23. or.

MUNDUKO BANKUA. 2010. Rising Global Interest in Farmland. Washington DC. 214. or. Hementxe dago irakurgai:

http://siteresources.worldbank.org/INTARD/Resources/ESW_Sept7_final_final.pdf

DIEA. Zenbait urte. Encuestas Agrícolas de primavera (2005 al 2009) y otoño/invierno (2005 al 2010). Nekazaritza eta Abeltzaintzako Estatistiken Zuzendaritza. Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa. Hementxe dago irakurgai:

<http://www.mgap.gub.uy/portal/hgxpp001.aspx?7,5,93,0,S,0,MNU;E;2;16;10;6;MNU>

DIEA. 2008. Tierras de uso agropecuario: ventas y arrendamientos (2000-2007). Lan bereziak, 262. zk. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Estatistiken Zuzendaritza. Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa. Uruguai.

DIEA. 2011. "Precio de la tierra". Nekazaritza eta Abeltzaintzako Estatistiken Zuzendaritza. Abeltzaintza, Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa. 11/3/16ko prentsa-jakinarraspena.

PIÑEIRO, D. 2010. "Dinámicas en el mercado de la tierra en América Latina: el caso de Uruguay". FAO. Aurretzako zirriborroa. 67. or.

PNUD. 2008. Desarrollo humano en Uruguay 2008: Política, políticas y desarrollo humano. Garapenerako Nazio Batuen programa. Uruguai. 388. or.

TAMBLER, A. 2009 eta 2011. Recaudación y presión fiscal en el agro. OPYPA Urtekaria, 2008 eta 2010. MGAP. Montevideo.

USDA. 2008. Trade and international markets. Economic Research Service (ERS). 2008ko abenduan on line kontsultatutakoa: www.ers.usda.gov/Briefing/Baseline/trade.htm

URUGUAIKO LANDA INGURUNEN EMAKUMEEN TALDEEN SAREAK ETA REDES-AT URUGUAYK IDATZITAKO TESTUA:

"Gure lurraldeak agronegozioaren hedapenerako plataforma bilakatu eta espekulazioaren helburu diren elikagaiak merkantzia bihurtzen dituzten neurrian, enpresentzako mozkinak sortzeko antolatzen da nekazaritza eta ez herriak elikatze. Inork ez du onesten emakumeek herriak elikatze orduan garatu duten zeregina eta eginkizun hori desagerraraztea da helburu nagusia. Emakumeek zeregin bakarra dute esleituta (nahiz eta esplotazio ankerpean garatu) agronegozioaren aldaeretan batean; esate baterako, frutagintza edo basoak berritzeko landaretxoen ekoizpena. Dena dela, ez dute inolako eginkizunik soia ekoizpenean.

Irabazi-asmoaren eta espekulazioaren arabera ekoizpen-eskeman, emakumeak eta familia-nekazaritza ekoizpenetik botatzen dituzte. Emakumeek nekazaritzari, agroekosistemen zainkari eta haziei buruz dituzten antzinako jakintzek ez dute inolako baliorik monolaborantzen eta eurekin lotutako sorta teknologikoen bidez lurraldeak suntsitzen dituen ekoizpen-sistemarentzat.

Horrela, bada, lanaren banaketa sexuala areagotzen da, eta, bertan, emakumeek ugalketan baino ez dute zereginik. Beraz, ez daude balioetsita, eta ez dute inolako eginkizunik ekoizpenaren arloan. Ekoizpenetik kanpo uzten dituztenean, emakumeek erabakietan parte hartzeko aukera ere galtzen dute, predioak nola kudeatu behar diren eta zer eta nola ekoizten den ebazteko orduan.

Agronegozia hedatzean, sorta teknologikoa inposatzen dute zenbait gezurren bitartez; esate baterako, nekazaritza modernoagoa eta hobea izan behar dela, hazien aldaketa genetikoak egin behar dela ekoizpena hobetzeko, plagizidak erabili behar direla errentagarritasun handiagoa lortzeko...

Publizitate engainagarria da, ordea. Horren ondorioz, gainera, gure lur emankorrari etengabe egiten diote eraso, aldaketa kaltegarriak sortzen dira gure kliman zein uraren zikloan, izurriteak ugaritzen dira eta landareetan zein pertsonetan eragina duten gaixotasunak agertzen dira. Izan ere, "ageriko arrazoirik gabeko" gaixotasunak dira ezer ikertu nahi ez dutenentzat, haurdunaldiak eten egiten dira eta umeei malformazioak daukate jaiotzean. Horra hor agronegozioaren ereduaren berehalako eraginak, zenbait aipatzearren.

Hori dela eta, nahikoa dela esan behar dugu emakumeek, eta ezin dugu hondamendian zein lekualdaketan oinarritutako prozesu hori inolaz ere onartu. Honako eskubide hauek ditugu, eta defendatu egin behar ditugu: geure elikagaiak ekoiztea, guztiontzako elikadura osasungarria edukitzea, elikagarri eta zapora ugariak elikadura izatea eta gure arbasoen jakintzetan oinarrituta egotea.

Ezin dugu monolaborantzen aurrerakada handi, inbaditzaile eta suntsitzaile hori inolaz ere onartu. Ezin ditugu bere ondorioak gehiago jasan, egunean eguneko eragina dutelako gudan: kutsatutako urak; lurzoru, ur eta gorputzetan iragazten diren agrotokikoak, antzutu arte gure lurzorua suntsitzen dituzten ekoizpen-sistemak eta bizitzeko aukera genuen lekutik, landa-ingurunetik emigratzera behartzen gaituen sistema."



AGRaren bultzada teknologikoa Afrikan

Mariann Bassey

(Environmental Rights Action/Friends of the Earth Nigeriako (ERA/FoEN) programa-zuzendaria eta Food Sovereignty and Agrofuels/Friends of the Earth Afrikako koordinatzailea)

Afrikako Iraultza Berderako Aliantza (AGRA) 400 milioi dolarreko ekimena da, Rockefeller Fundazioak eta Bill eta Melinda Gates Fundazioak finantzatzen dute eta NBEko Kofi Annan idazkari nagusi ohia da bertako presidentea. Oso argigarria da AGRako eta USAIDeko goi-karguetan Monsantoetik eta Dupontetik datozen pertsonak egotea.¹ AGRaren web orrian adierazten denez, honako arlo hauek erabateko aldaketaren alde lan egiten dute, Afrikan nekazaritza-iraultza “berdea” sortu dadin: haziak, lurzoruak, merkatuetarako sarbidea, politika eta elkarteak.

Gogoan eduki behar dugu 1967. urtean Rockefeller Fundazioak Ford Fundazioarekin bat egin zuela, Nigeriako Oyoko estatuko Ibadanen kokatuta dagoen Nekazaritza Tropikalerako Nazioarteko Institutua sortzeko (IITA). Gutxi gorabehera, aldaketa genetikodun organismoak (AGO) gure kontinentean zabaltzeko eta hedatzeko sistema da IITA. AGRak, beraz, “erabat afrikarra den iraultza berdea sustatzea” du helburu nagusi.²

Kofi Annan AGRako kontseiluko presidente izendatu zutenean, argi eta garbi adierazi zuen aldaketa genetikorako teknologia (AG) ez zela AGRaren ametsak betetzeko baliabidea izango. Zenbait egun geroago, bozeramailek baieztapen hori ukatu zuten, eta, orain, behin eta berriro diote AGRak ez duela inolako tresnarik alde batera utziko, bere ametsa gauzatzeko ahaleginean. Haratago joanez gero, ageri-agerikoa da AGOez ari direla.

ERA/FoEN erakundeek AGri buruzko azalpena eskatu diote AGRari. Euren erantzunaren arabera, ez du AG

hazirik erabiliko, nekazari txikien artean eragin handia dutelako. Dena dela, ez dituzte eskuragarri dauden teknologiak baztertuko.³

AGRAREN ALIANTZA TEKNOLOGIKOA:

2010eko abuztuan, AGRA Watchek jendaurrean adierazi zuen Bill eta Melinda Gates Fundazioak 23,1 milioi dolar inbertituko zituela, Monsanto 500.000 akzio erosteko. Denok dakigunez, Monsanto erraldoi genetikoko handienetakoa da, eta mundua menderatu nahi du hazien kontrol korporatiboaren bidez. Ez dago inolako zalantzarik. Jerry Archerrek oso laburpen ona egiten du Monsantoaren programari buruz.

“1999ko urtarrilean industria bioteknologikoari buruz egindako biltzarrean, Arthur Anderson LLP konpainiako ordezkari batek Monsanto bere plan estrategikoa diseinatzen nola lagundu zioten azaldu zuen. Lehenengo eta behin, taldeak Monsanto zuzendariei galdetu zien 15 edo 20 urtean euren etorkizun ideala zein izango zen. Zuzendarien esanetan, munduko hazi komertzial guztien aldaketa genetikoa lortu eta hazi horiek patentatu behar ziren. Anderson konpainiako aholkulariek helburu horren arabera egin zuten atzera, eta hori lortzeko estrategia zein taktikak garatu zituzten. Behar besteko urratsak eta prozedurak aurkeztu zituzten Monsanto, modu birtualean hazi naturalik ez zeukan munduan nagusitasun industria-lortu zezan.”

“Nekazari gizagaixoei” laguntzeko eta Afrikako “go-seteari” aurre egiteko aitzakiarekin, Bill Gatesek erraldoi genetikorekin bat egin du, enpresentzako saiakuntzako arloan Afrikaren eraldaketarako milioi askoko saialdiko burua izateko. Saialdi horretarako harreman publikoei dagokienez, Afrikako Iraultza Berderako Aliantza (AGRA) da programa nagusia, hau da, iraultza berderako proiektu erraldoia. Orain arte, AGRako bozeramaileak iheskorrak izan dira, eta, zintzoak izan gaitzen, AGOen inguruan daukaten jarrera kontrajarria izan da erabat.”⁴

¹ Daniel Maingi: Zergatik estaltzen ote du Kofi Annanek Monsanto? AGO eraso Afrikan.

<http://www.modernghana.com/news/294587/1/why-is-kofi-annan-fronting-for-monsanto-the-gmo-as.html>

² <http://www.agra-alliance.org/section/about>

³ AGRarentzako txartel gorria: Nnimmo Basseyren ongietorri-diskurtsoa: Environmental Rights Action/Friends of the Earth Nigeria erakundeak antolatutako Lurrez jabetzeko prozesua, AGRA eta nekazaritza ez-ekologikoa hitzaldiko hasiera-ekitaldian, Abuja, Nigeria, 2009ko urriak 21-24.

Inolako zalantzarik gabe, betidanik jakin dut zein den Afrikarako AGRAREN sorreraren helburua: behar den moduko makineria abian jartzea, tokian tokiko hazi-sistemak suntsitzeko eta, haien ordez, enpresa-sektorearen kontrolpeko iraultza genetikoak ezartzeko.

BILL GATESEN PROGRAMA NAGUSIA ETA AGRA

Gatesen nekazaritzako programa nagusia honako arlo hauetan dago oinarrituta: teknologia genetiko/zientifikoa, merkatuak, hazietako inbertsioak, kabildeoa eta sektore pribatuaren nahiz bazkideen inplikazioa.

Orain dela bost urte, Bill eta Melinda Gates Fundazioak Sayre doktoreari eta BioCassava Plus Proiektuari eman zien 12 milioi dolarreko dirulaguntza, maniokaren hobekuntza nabarirako ingeniari-tza genetikoaren erabiltzeko.⁵

2004. urtean, IITAK, Donald Danforth Plant Science Centerrek, Garapen Bioteknologikorako Agentzia Nazionalak eta Nigeriako National Root Crops Research Institutek Nigeriako Ingurumen Ministerio Federalean aurkeztu zuten eskabidea, aldaketa genetikodun maniokaren inguruko saiakuntza “kontrolatua” egiteko. Antza denez,



izapidepean egon zen urte horren hasierara arte, IITAK ministerioari idatzi ziolako eskabidea geldiarazteko. Izan ere, eurek AEBetan egin zuten probaren arabera, manioka hori ez zen mosaikoaren gaixotasunari aurre egiteko gai.

2009ko martxoan, Donald Danforth Plant Science Centerrek (“Danforth Centerrek”) 2009ko otsailaren 13an Zientziaren Aurrerakuntzarako Elkarte Amerikarrak AEBetako Chicagon egindako urteko bileran argitaratu eman zuten “onarpen” onartezinaren inguruan irakurri ahal izan genuen. Hain zuzen ere, bertan iragarri zenez, Nigeriako Biosegurtasunerako Batzorde Nazionalak (aholkuak emateko eskumena duen batzordea, baina ezer onartzeko aginterik ez duena) bere onarpena eman zuten, Missouriiko St Louis Zentroak Nigerian aldaketa genetikodun (AG) maniokaren inguruko saiakuntzak egin zitzaizkion.

2008. urtean, Water Efficient Maize for Africa (WEMA) programa jarri zen abian, eta Warrant Buffet zein Bill Gates filantropo aberats-beratssek 47 milioi dolarreko dirulaguntza eman zioten. Programak Afrikako zenbait herrialdeetako nekazari- laguntzen omen die euren uztak lehorteari zein beroari aurre egiteko gai diren arto-barrietateen bidez handitzen. Dena dela, urte berean Biosegurtasunerako Zentro Afrikarrak zabalduetako txostenaren arabera, WEMA programak Afrikako elikaduraren subiranotasuna jartzen zuen mehatxupean, eta nekazaritza-sektoreko erraldoiei irekitzen zizkien merkatu berriak; Monsanto berari, esaterako.⁶

Gates Fundazioak baieztatu egiten du bioteknologia, ingeniari-tza genetikoko laborantzak eta intsumo industrialak beharrezkoak direla, munduan gero eta ugariagoak diren biztanleei jaten emateko. Gainera, WEMA programa oso lagungarria izango omen da, garapen-bidean dauden herrialdeetako txirotasunari eta goseteari aurre egiteko. Nolanahi ere, egitatei erreparatuta, benebenetan jartzen dugu kolokan zer dagoen Afrikan abian jarri dituzten proiektu horien guztien atzean. Nabarmendu egin beharko genuke WEMA programa ezarri duen erakundea Afrikako Nekazaritzako Teknologiarako Fun-

⁴ “Los Agricultores Africanos Dicen No Gracias a la ‘Revolución Verde’ de Bill Gates http://humanrights.change.org/blog/view/african_farmers_say_no_thanks_to_the_bill_gates_green_revolution

⁵ Ann Delpus: Científicos norteamericanos usan ingeniería genética para proteger el cultivo fundamental de la mandioca en África. <http://news.inventhelp.com/Articles/Food-Beverage/Inventions/cassava-farming-12528.aspx>

⁶ Mike Ludwig: 12 de Julio de 2011: Monsanto y la Fundación Gates impulsan los Cultivos de Ingeniería Genética en África

dazioa dela (AATF), hau da, Ipar Amerikako gobernuko USAID programak, Erresuma Batuak, Buffet Fundazioak eta Gates Fundazioak oso-osorik finantzaturako talde bioteknologiko porrokatua.

2010eko irailean, AGRako presidenteorde ohia eta Nigeriako Errepublikako Federaleko Nekazaritzako gaur egungo ministroa den Akinwumi Adesinak Ghanako biltzar batean irmo-irmo baieztatu zuenez, “ekintza-plan argia diseinatu dugu, teknologien, politiken, finantzen eta azpiegiturretako inbertsioen arloan Iraultza Berdearen erritmoa azkarragoa izan dadin.”⁷

2011ko martxoaren 9an, AGRak milioika dolar banatu zituen, diruz lagundutako ongariak eta hazi hibridoak erosteko. Horrela, bada, “ekoizpena handiagoa” izango omen zen. Elikadurarako Eskubidearen arloko NBEko De Schutter errelatore bereziak, ordea, mugimendu hori iraunkorra ez zela adierazi zuen.⁸

2011ko irailean, Kofi Annanek biltzarra antolatu zuen Ghanan, “guztiok batera lan egiteko eta Afrikako Iraultza Berdea azkartzeko”.

Nabarmendu egin behar da Gatesek eta bere AGRak finantzaturako proiektu gehienek irtenbide zientifikoak eta teknologikoak, goi-teknologiako metodo zein intsumo agroindustrialak, hazien patenteak eta aldaketa genetikodun laborantzatarako kabildeoa sustatzen dituztela. Horren ondorioz, nekazarien zorra gero eta handiagoa da, menpetasun handiagoa dute substantzia kimikoen arloan, interes korporatiboak babesten dira eta lurraren bateratasuna sustatzen da.

Azpimarratu egin behar da industria bioteknologikoak jendearentzat lehen premiakoak diren elikagaien laborantzak dituela helburu, nahiz eta AG bariatateak beharrezkoak izan ez. Hostoaren mosaiko-gaixotasunari aurre egiteko asmoz, Nigerian maniokaren genetika aldatzeko egiten ari diren ahalegina da horren adierazgarri. Tokian tokiko zenbait bariatatek arrakastaz aurre egiten diote gaixotasun berari, baina industriak aldaketa genetikodun bariatatea ezarri nahi du nahita nahiez.

AGRA ETA GOSATEA:

Gosatea tresna politiko moduan erabili dute, Afrikako nazioek oso osasungarriak ez diren elikagaien isurketari ateak zabaldu diezazkioten. Izan ere, gosea omen da Afrikak aldaketa genetikodun elikagaiak onartzeko dauzkan arrazoi nagusietakoa. Bien bitartean, munduan bilioi bat lagun baino gehiago doaz ohera goseak hiltzen, eta bikoitzak-edo malnutrizioa du, osasungarriak ez diren elikagaien bidez elikatzen edo azpielikatzen dituztelako. 2004an Zambian bizitako egoera da horren adibide aparta. Zambiako gobernuak aldaketa genetikodun (AG) artoa gaitzetsi zuen AEBek World Food Programme programaren bidez emango zioten elikadura-laguntzan. Segurtasunagatik egin zuten, eta, gainera, ez zekiten jendeak aleak nahi gabe landatuko zituen, banatuak izanez gero.⁹ Zambiarrek bizirik iraun zuten, herrialdeko beste eskualde batzuetan nazioarteko dohaintza-emaileek erosi nahi ez zuten janaria zegoelako. Ez dut ulertzen zergatik nahiago duen WFPk onarpen kulturalik gabe atzeritik datorren janari arrotza eta aizundua erosi, tokian-tokian erosi beharrean. Ez dut enigma hori inolaz ere ebazterik.

Nabarmendu egin beharko litzateke USAIDek, Nekazaritza Tropikalerako Nazioarteko Institutuak eta euren aliatuek AG laborantzak hedatzeko egin dituzten saialdietan ez dutela iritzi kritikorik kontuan hartu. Oro har, inguruko jendeak eta nekazariak teknologia hori gaitzesten dute. Manioka-hostoaren mosaiko-gaixotasunari aurre egiteko manioka aldatua da horren adierazgarri argia: gaur arte, porrot egin du, eta, gainera, gaixotasunari aurre egiten dioten bariatateak daude eta ez dira aldaketa genetikodunak. Agentzia bioteknologikoez, ordea, ez dute amore ematen. Hona hemen galdera nagusia: zergatik xahutu Afrikako nekazaritza-ekoizpena sendotzeko hobeto erabili litezkeen baliabideak, tokian tokiko jakintzen aberastasunari onura atera ahal zaionean eta elikaduraren subiranotasuna bermatu daitekeenean? Oakland Institutuak egin berri duen txostenaren arabera, Afrikako

⁷ Naomi Antony: 2010eko irailaren 10a: Ghana bilera batean hitzartutako Iraultza Berderako Plana: <http://www.scidev.net/en/news/green-revolution-plan-agreed-at-ghana-meeting.html>

⁸ Tom Paulson: 2011ko martxoaren 9a: nekazaritza ekologikoa onena da txiroentzat, esan du NBEko aditu batek, eta ez Gates Fundazioaren ikuspedia. <http://humanosphere.kplu.org/2011/03/eco-farming-could-feed-the-world-un-expert-says-challenging-gates-foundations-approach/>

⁹ FoEI, 2003. Gosatea, jostailu. http://www.foei.org/publications/pdfs/playing_with_hunger2.pdf

herrialdeetako herri gehienek euren jakintza indigenak eta tokian tokiko teknologia egokiak errespetatzeko eskatzen diete, Gates Fundazioak eta AGRAk euren jarduketak abian jartzen dituztenean.

ZER NAHI DUGU?

AGRAk Afrikako “txiroei” eta “gosetiei” lagundu nahi badie, lehenengo eta behin, zergatik jokatzen dute gure kaltetan? Bigarrenez, zergatik ez digute galdetzen zer nahi dugun, tokian tokiko sistematik aldentutako teknologia ezarri beharrean? Hain zuzen ere, horixe bera izan beharko zen abiapuntua, enpresa-sektoreak bultzatutako agenda onartzera behartu beharrean. Ez dugu AGRARik nahi, interes partikularrak dituzten dohaintza-emaileek sustatutako ekimena delako AGRA. Korporazioek gure haziak, lurrak, elikagaiak eta, gero, gure bizitzak kontrolatuko dituzte. AGRAk ez ditu afrikarren interesak kontuan hartzen. Negozioa da, nekazaritzako negoziua, alegia.



ERA Amigos de la Tierra Nigeria

Behin eta berriro diogu Garapenerako Nekazaritzako Zientzia eta Teknologiaren Nazioarteko Ebaluazioaren berrikuspeneko (IAASTD) ondorio garrantzitsuak hartu behar direla kontuan. Txostenean, funtsezko hogeitau ondorio agertzen ziren, eta, euren artean, agerikoa zen lehen-tasun handiagoa eman behar zitzaizela ikuspegi agroekologikoei. Hona hemen txostenaren ondorioak:

“Nekazaritza organikoak nekazaritzaren emankortasuna areagotu dezake, eta irabaziak eurak ere handiagotu ditzake, kostu txikiaren zein tokian tokiko teknologia egokien bidez eta ingurumenean kalterik eragin gabe. Horrez gain, agerikoa da nekazaritza organikoak baliabide naturalak ugaritu ditzakeela, erkidegoak indartu ditzakeela, giza gaitasuna hobetu dezakeela eta elikaduraren segurtasuna sustatu dezakeela, aldi berean era guztietako faktore asko jorratzen dituelako.”

Nekazariei benetan lagundu nahi badiezue, lau urteko eztabaida eta azterketa zientifiko, sozial eta ekonomikoan oinarritutako IAASTD txostena jarri abian. Ez dugu inolaz ere onartuko gure kontinente afrikarra kutsatzea.

Aurtengo martxoan, NBEk txostena eman zuen argitaratu, eta, bertan, “nekazaritza ekologikoa” mundu garatuko nekazaritza hobetzeko estrategia onena zela adierazi zuen. Egileak, hain zuzen ere, kolokan jartzen zuen Gates Fundazioak nekazaritzaren garapeneraren arloan zeukan ikuspegia egokia zen ala ez.¹⁰

Txostenean bertan, De Schutterren aipamena egiten zen, honako haxe esatean: “iraganeko ahalegin gehienek haziak hobetzea eta nekazariei ekoizpen handiagorako zenbait intsumo bermatzea izan dute helburu. Beraz, prozesu industrialetako ereduak ezarri dira berriro, eta, bertan, kanpoko intsumoak erabiltzen dira, produktua ekoizpen-eredu linealean ekoizteko. Agroekologiak, ordea, agroekosistemen iraunkortasuna hobetu nahi du, eta, horretarako, natura bera hartzen du eredutzat eta ez industria. Nekazaritza ekologikoa ez du pestizidaintsumo garestirik behar: erregai fosilak, ongarririk, makinak edo hazi hibridoak. Oso-oso egokia da nekazari zein abeltzain txiro txikientzat eta munduko bilioi bat

¹⁰ Tom Paulson: 2011ko martxoaren 9a: nekazaritza ekologikoa onena da txiroentzat, esan du NBEko aditu batek, eta ez Gates Fundazioaren ikuspegia. <http://humanosphere.kplu.org/2011/03/eco-farming-could-feed-the-world-un-expert-says-challenging-gates-foundations-approach/>

gosetirentzat. Gobernuak eta Afrikako Iraultza Berderako Aliantza (AGRA) bezalako dohaintza-emaile handiek 400 milioi dolar eman dituzte diruz lagundutako ongarriak eta hazi hibridoak erosteko. Horren ondorioz, ekoizpenaren gorakada handia izango den arren, epe luzeari begira ez da batere iraunkorra izango.”

ONDORIOA:

Nigerian eta, batez ere, Sahara Azpiko Afrikan, nekazari gehienak emakumeak dira, eta gehienek euren seme-alaben laguntzaz lantzen dituzte lurak. Oro har, Afrikako herrialde gehienetan, emakumeak dira familiako gainerako kideentzat elikagaiak erosi eta/edo biltzen, prestatzen eta zerbitzatu dituztenak. “Emakumeek senarrari ematen diote jaten; gero, seme-alabei eta etxeko beste kide batzuei; eta, azkenik,... sobera dagoena... jaten du berak. Emakume haurdunek eta bular-emaileek ere jaten dute azken posizioan, nahiz eta jateko orduan lehenak izan beharko liratekeen... Goseak aurpegirik balu, emakume-aurpegia izango luke. Beraz, goseari ondoen aurre egin ahal dion aurpegia ere emakume-aurpegia da.”¹¹

AGRAk bere iraultza zientifikoari eusten badio, haziak kontsumo-ondasun bihurtuko dira, betiko nekazaritza ekologikoa desagertu eta enpresa-sektorearen kontrolpeko sistema toxiko monopolistikoa ezarriko da eta, bertan, argi eta garbi dago emakumeak izango direla kaltetuenak. Oro har, emakumeak dira familiaren edo erkidegoaren nutrizio-premiei aurre egin behar dietenak.

Gure ustez, Afrikako “gosetea” ez da konponduko AGRako agenda korporatiboaren bitartez, arazoa larrigotu egingo duelako. Jendea goseak hiltzen dago, “daukatenen” eta “ez daukatenen” artean dagoen amildegia gatik eta ez munduan jatekorik ez egoteagatik.

Ez dugu uste Bill Gates Fundazioa eta Monsanto bezalako bazkideak munduko gosetea desagerrarazteko gai izango direnik AGRA proiektu mimatuaren bidez. Ez lukete gosea politizatu beharko. Gure jendearentzat

sustatzen dituzten teknologiak ez dira nekazarien onurarako, eta ez dute ingurumena errespetatzen. Batzuk, gainera, ez dituzte oso-osorik probatu, ingurumenean eta kontsumitzaileen artean nolako eraginak dituzten jakiteko. Afrikako nekazariak elikaduraren subiranotasuna lortu nahi dute. Beraz, ez da bidezkoa osasungarriak ez diren elikagaiak eta AGOak inposatzea!

Azkenik, Afrikan bertan aurre egingo diete afrikarren elikadura-premiei. Izan ere, bedeinkatuak izan gara, eta landaretza ona, lurzoru aberatsak eta nekazaritza-arloko toki-jakituria aparta dauzkagu. Nekazaritza ekologikoa sustatu behar dugu, edozein iraultza baino garrantzitsuagoa da-eta.



¹¹ Elizabeth Jeiyol: Gosearen Genero Dimentsioak. 2010eko azaroaren 16tik 19ra Nigeriako Abujan “Gosearen Politikari” buruz egindako Ingurumen Kontsulta Nazionalan (NEC) garatutako aurkezpena. Environmental Rights Action/Friends of the Earth Nigeria izan zen antolatzailea.



Ur-Eskubidea Palestinan: Testuingurua

(*PENGON. Amigos de la Tierra Palestina*)

Israelek Palestinako ur-baliabideak konfiskatzea eta kontrolatzea okupazio israeldarraren ezaugarri bereizgarria da, baita Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren bidezko konponbiderako eragozpen handienetakoa ere. Horrez gain, Israelek Palestinako ur-baliabide guztiak kontrolatzen dituzenez, ez dago inolako aukerarik garapen iraunkorra aurrera eramateko, eta, aldi berean, palestinarrek edateko ur segurua, eskuragarria eta egokia edukitzeko duten giza eskubidea urratzen da. Israelgo ur-politika baztertzailerakenez, ura ez da berdintasunez banatzen Israelen, Israelgo legez kanpoko kokalekuen eta Palestinako lurralde okupatuan (PLOn) bizi diren palestinarren artean. Horrez gain, gero eta ur-baliabide palestinar gehiago hartzen dituzte eurentzat. Ur gutxiko eskualdean, Israelgo ur-politikak gaur egungo kontsumoie eusteko ur gehiago aurkitzea du helburu nagusi, israeldarrek eta kolonoek uraren erabilieran dituzten gaur egungo eredu iraunkortasuna edonolokoa dela ere. 1993an, Israelgo estatuko kontu-hartzailearen esanetan, Mendebaldeko Erribera “edateko uraren erreserba nagusia da Dan, Tel Aviv, Jerusalem eta Beershebako eskualderako”, baita “ur-sare [nazionalako] epe luzerako iturri garrantzitsua” ere.¹

- Israelek larregizko kopurua kontrolatzen du Palestinarekin partekatzen dituen bi ur-sareetan. Ia-ia, **Jordan ibaiko arroaren %100** kontrolatzen du, baita mendebaldeko (mendiko) akuiferoeko lurpeko uraren %80tik gora ere²
- Israelek Mendebaldeko Erriberako **lurpeko ur erabilgarriaren %85** erabiltzen du, hau da, Israelgo ur-kontsumoaren %25³

HISTORIA

- **1964an**, Israelek Ur Akueduktu Nazionalaren eraikuntza amaitu zuen, 1953an hasi bazen ere. Ur-proiektu erraldoi hori Galileako Itsasoan hasi eta Negeveraino iristen da, eta honako hauek ditu osagai: hodiaren sarea, ponpategiak, urtegiak eta ubideak. Gainera, Jordan ibaiko uraren %75 desbideratzen du Israelerantz. Siriak eta Jordaniak urtean 160 mcm eta 320 mcm erabiltzeko baimena dute, hurrenez hurren. Palestinarek, ordea, Jordan ibaiko ura erabiltzea debekatu diete⁴
- **1967.** urtearen ostean, Israelek okupazio berriko lurralde palestinarretako ur-baliabide guztien kontrolatu hartu zuen bere gain, ur-gatazkei buruzko aurreko hitzarmen guztiak ezeztatzen zituzten zenbait agindu militarren bitartez. Horren arabera, ponpake-ta-kuotak ezarri ziren, eta eskualdeko komandante israeldarraren baimenik eduki gabe putzu berriak eraikitzea debekatu zieten palestinarrei. 1967. urteaz geroztik, 23 putzu berrirako baimenak baino ez dira eman.⁵
- **1982an**, Israelgo Mekorot ur-konpainia nazionalak Palestinako uraren kontrola hartu zuen bere gain. Lehendik zeuden putzu palestinar asko suntsitu zituzten, eta, bien bitartean, Israelen erabilerarako putzu sakonagoak industen eta ponpatzen jarraitu zuten. Beraz, Palestinako putzu antzinakoenenak lehortu zituzten ia-ia.
- **1986an**, Israelek palestinarrek putzuetatik ponpatu zezaketen ur-kuota %10 murriztu zuenez, ur-eskasia handi-handia izan zen.⁶
- **1995ean**, Osloko II. Hitzarmenaren arabera, ur-iturrien banaketa “azken estatutuari buruzko ne-

¹ LAW “Visión general de las consecuencias de la Ocupación Israelí sobre el medio ambiente en la Ribera Occidental y Gaza,” 2000.

² B’Tselem, “Sed de Solución,” 2001.

³ Jad Isaac y Mohammad Ghanyem, “Degradación Medioambiental y el Conflicto Israelí-Palestino,” ARIJ 2001.

⁴ PASSIAren buletin berezia, “Agua: El Oro Azul de Oriente Medio”, 2002ko uztaila.

⁵ LAW “Visión general de las consecuencias de la Ocupación Israelí sobre el medio ambiente en la Ribera Occidental y Gaza,” 2000.

⁶ PASSIA, “Hoja Informativa – Agua y Medio Ambiente.”

goziaketetarako” gaitzat hartu zuten. Israelek, hain zuzen ere, mekanismo hori erabiltzen du 1995. urteaz geroztik, Palestinako ur-baliabideez legez kanpo jabetzen jarraitzeko (inoiz ez dira Osloko “azken estatutuari buruzko negoziaketak” lortu). Palestinako Ur Konpainia (PWA) ezarri zen arren, Palestinako lurralde okupatura zihoan uraren fluxuaren eta kopuru guztiaren kontrolari eutsi zion Israelek. PWAk ur-baliabideak kudeatzeko boteririk ez badu ere eta Israelek baimentzen dion hornikuntza mugatua bakarrik esleitzen badu ere, PWArena omen da ur-eskasiaren errua eta ez okupazioarena. Horrez gain, Osloko II. Hitzarmenean bertan ez da esaten lehendik dauden ur-iturriak birbanatu behar direnik eta israeldarrek edo kolonoek erauzitako edo kontsumitutako uraren kopurua murriztu behar denik.

- 2000. urteaz geroztik, irailean Bigarren Intifada hasi zenetik, Israelgo armadak ur-azpiegituren suntsipena areagotu du, eta are ur-iturri gehiago konfiskatu ditu Mendebaldeko Erriberan zein Gazan.⁷

URAREN ERABILERAREN ERKAKETA⁸

Modu absolutuan zein proportzionalen, israeldarrek eskualdeko ur-baliabide guztien askoz kopuru handiagoa erabiltzen dute. Kolonoek egunean 600 litro ur erabiltzen dituzte ia-ia. Palestinarren uraren erabilera, ordea, eguneko 100 litroko minimora ere ez da iristen, Osasunaren Mundu Erakundeak kopuru hori gomendatzen badu ere.

PALESTINARREN UR-ESKUBIDEAREN URRAKETAK

Urte osoan zehar, israeldarrek eta kolonoek Mekoroten ur-hornikuntza jarraitua badaukate ere, palestinarrak honako egoera hauei aurre egin behar diete:

- **Ur-hornikuntza irregularra** da Mendebaldeko Erriberan, baina, batez ere, ur gutxi dagoen udako hila-beteetan.
- **Gazako ura agortuta/kutsatuta/gazituta** dago, kostaldeko akuiferoa larregi erauzi dutelako eta, batez ere, palestinarreri ur-azpiegitura garatzeko edo konpontzeko baimenik ematen ez dietelako.⁹
- **Ura banatzeko sareko galerak %30-%50ekoak** dira, sareak higatuta daudelako eta hodiekin ihesak dituztelako. Izan ere, premiazkoa da horiek guztiak konpontzea.¹⁰
- **Ura ez dago batere bideratuta** Mendebaldeko Erriberako 150 herritan bizi diren 215.000 palestinarren-tzat (Mendebaldeko Erriberako familien %26).¹¹
- Palestinar askok **ura erosi behar diete** Mekoroti edo hornitzaile pribatuei, nahiz eta kamioietan garraiatutako ura oso garesti eta arautu gabe saltzen dieten arren. Palestinako lurralde okupatuan ere, Merokoten prezioak desberdinak dira palestinarentzat eta Israelgo kolonoentzat.¹²



⁷ Palestinako Ingurumen GKE-en Sarea, “Campana contra el Muro del Apartheid, Informe N° 1”, 2002ko azaroa

⁸ PASSIAren buletin bereziaren arabera kalkulaturako zenbakiak, “Agua: El Oro Azul de Oriente Medio”, 2002ko uztaila; B’Tselem, “Sed de Solución”, 2001; eta UNEP, “Estudio documental del Medio Ambiente en la Ribera Occidental y Gaza”, 2002.

⁹ Jad Isaac eta Mohammad Ghanyen, “Degradación Medioambiental y el Conflicto Israelí-Palestino”, ARIJ 2001.

¹⁰ UNEP “Estudio documental del Medio Ambiente en los Territorios Palestinos Ocupados,” 2002.

¹¹ PASSIA, “Hoja Informativa – Agua y Medio Ambiente.”

¹² Jad Isaac eta Mohammad Ghanyen, “Degradación Medioambiental y el Conflicto Israelí-Palestino”, ARIJ 2001.

BIGARREN INTIFADATIK, “SEGURTASUNAREN” IZENEAN

- **Ur-azpiegituraren suntsipena.** Israelgo armadak hodiak atera ditu hondeamakin bidez, eta, gutxienez, Mendebaldeko Erriberako zein Gazako 15 putzu suntsitu ditu 2000ko irailaz geroztik. Horren ondorioz, Palestinako herri eta hiri askorentzako ur-iturri nagusia desagertu da. Munduko Bankuaren, UNDPren eta USAIDen arabera, 2002ko martxotik maiztera Israelgo armadak Mendebaldeko Erriberako ur-hornikuntzan eta estolderia-azpiegituran eragindako kaltea 7 milioi dolar amerikarrekoa da gutxi gorabehera.¹³



- **Kamioietan garraiatutako ura eskuratzeko aukera mugatua.** Israelgo “itxiera” politikak modu larrian mugatzen du ur-garraiolariek duten sarbidea, nahiz eta palestinarren herenak tanga-kamioi pribatuei edo udalekoei erositako uraren menpe dauden euren ur-premiei aurre egiteko.¹⁴
- **Uraren prezioaren gorakada.** Kontrol-guneetan atzeratzen direnean, ura saltzen duten tanga-kamioiek ia-ia %80 igotzen dituzte euren prezioak,

itxieraren ondorioz garraio-aldia luzeagoa izan delako. Lanekuaren %70-%90 langabezian dagoela kontuan hartuta, palestinarrek euren etxeko gastuen %39 inbertitu behar dute ura erosteko.¹⁶

- **Putzuak zulatzeko debekua.** 2002ko urrian, Israelgo azpiegitura-ministroak, Effi Eitamek, palestinarrei debekatu zien ura ateratzeko zulaketak egitea, eta, horrez gain, putzuetarako etorkizuneko baimenen jaulkipena ere izoztu zuen.¹⁷
- **Ur-iturrien banaketa.** 2002ko ekainean, Israelgo gobernuak “segurtasun-harresia” eraikitzeke plana baimendu zuen, “Banaketa Harresia” edo “Apartheid Harresia”, hain zuzen ere. Horren ondorioz, hesi elektrikoak, lubakiak eta segurtasun-patruilak jarri dituzte Mendebaldeko Erriberako 220 miliako luzerako lur-zatian. Nolanahi ere, harresia ez da “Lerro berdean” zehar eraikiko (hau da, 1967a baino lehen, Israelen eta Mendebaldeko Erriberaren artean zegoen de facto mugan zehar), Mendebaldeko Erriberan bertan baizik. Harresiak milaka palestinar banatuko ditu euren lur eta ur-iturrietatik. Harresiaren lehen fasean, Mendebaldeko Erriberako iparraldean nekazaritza bizibide duten zenbait herrik lurpeko ura lortzeko 30 putzutarako sarbidea galduko dute.¹⁸
- Uraren bidez kutsatutako gaixotasun gehiago. Egin berri diren azterlanen arabera, urarekin lotutako gaixotasunengatik infekzio-indizeak %64 igo dira Mendebaldeko Erriberako zenbait erkidegotan. Egin berri den beste ikerlan baten arabera, Mendebaldeko Erriberako landa-inguruneko familien laurdenetan baino gehiagotan diarrea daukan kidea dago; eta familia horien erdiak baino gehiago bainurako ur egokirik gabe egon dira bi astetik gorako epean.²⁰

¹³ Palestinako Hidrologia Taldea, “Informe WaSH nº 6: Diciembre de 2002”; eta UNEP, “Estudio Documental del Medio Ambiente”, 2002.

¹⁴ Palestinako Hidrologia Taldea, “Informe WaSH nº 6: Diciembre de 2002”.

¹⁵ Ibid.

¹⁶ Oxfamen 28. txostena, “Pueblos Olvidados - La lucha por sobrevivir bajo el Cierre en la Ribera Occidental”, 2002ko iraila.

¹⁷ Jessica McCallin, “Israel prohíbe nuevos pozos en la Ribera Occidental”, Sunday Herald, 2002ko urriaren 28an.

¹⁸ PENGON, “Campaña contra el Muro del Apartheid, Informe nº 1”, 2002.

¹⁹ Rantiserako gaixotasun-tasa (Ramallah). Palestinako Hidrologia Taldea, “Informe WaSH nº 7, Marzo de 2003”.

²⁰ Oxfamen 28. txostena, “Pueblos Olvidados - La lucha por sobrevivir bajo el Cierre en la Ribera Occidental”, 2002ko iraila.

ISRAELEK PALESTINAKO UR-ITURRIAK KUTSATZEN DITU²¹

- Mendebaldeko Erriberako eta Gazako **kokaleku israeldar** gehienak muinoen goiko aldean daude lekuratuta, eta euren simaurra, tratatu gabeko kloakurak eta hondakin-urak isurtzen dituzte bailaretara. Hori dela eta, Palestinako ur-iturriak eta nekazaritzarako lurra kutsatuta daude erabat. Mendebaldeko Erriberari buruzko 1997ko zenbakien arabera, kolonoek palestinarek baino 6 aldiz gehiago kutsatzen zuten (300.000 kolonok 30 mcm hondakin-ur sortzen zituzten urtean, eta, epealdi berean, 1.870.000 palestinarek 31 mcm hondakin-ur baino ez zituzten sortzen).
- **Oso-oso kutsagarriak diren industria israeldarrak** birkokatu dituzte Mendebaldeko Erriberan (berriro ere, muinoen goiko aldean). Horrela, bada, ez dute Israelgo ingurumen-araudia zertan beterik. Mendebaldeko Erriberako 7 industrialdetako 200 industriak, gutxienez, tratatu gabeko efluente industrialak eta hondakin-urak isurtzen dituzte Palestinako erreketara eta nekazaritzarako lurretara.
- 2001eko otsailean, **Israelek** tratatu gabeko eta euri-uraz nahastutako **3,5 milioi metro kubiko** hondakin-ur hustu zituen Gazako Lurraldeko iparraldeko zenbait hiritan.



²¹ Jad Isaac eta Mohammad Ghanyen, "Degradación Medioambiental y el Conflicto Israelí-Palestino", ARIJ 2001.



ZER EGINGO DUGUN

Palestinako Hidrologia Taldeak (PHG) “Bizitzeko Ur Palestinarra” kanpaina jarri du abian, mundu osoa Palestinako uraren egoeraren eta osasun-baldintzen inguruan kontzientziatzeko eta era guztietako GKE-en artean uraren krisirako erantzun integral bezain koordinatuak garatzeko: dohaintza-emaileak, garapenerakoak, laguntzakoak, giza eskubideen aldekoak... Mesedez, kanpainaren www.phg.org/campaign web orrian sartu, nola lagundu ahal diezun jakiteko.

Palestinako Ingurumen GKE-en Sareak (PENGON) Apartheid Harresiaren aurkako Kanpaina jarri du abian, jendea kontzientziatzeko eta “Banaketa Harresiaren” aurkako ekintzak antolatzeko, palestinarek euren ur-baliabideak lortzeko dituzten aukera eta kontrola mehatxupean jartzen ditu-eta. Kanpainaren nondik norakoak zein diren eta PENGONi nola lagundu ahal diozun jakiteko, www.pengon.org web orrian sartu besterik ez duzu.

Zeure erkidegoa prestatu! Palestinako uraren egoerarekin lotutako gai ei buruzko mintegiak antolatu eskola, elkarte eta zentro bateratuetan, hizlari adituen laguntzaz.

Komunikabideekin jarri harremanetan! Irratsaiotara deitu, gutunak eta iritziak idatzi eta kazetari zein editoreekin batzartu, Palestinako ur-baliabideen arpilaketari buruz hitz egiten dutela bermatzeko.

Gure <http://www.cesr.org/PROGRAMS/waterpalestine.htm> web orrian sartu, Palestinako uraren krisia zertan datzan hobeto jakiteko



Mundubat

www.derechoshumanosdelcampesinado.org

www.mundubat.org

www.facebook.com/Mundubat



Amigos de la Tierra

Diru-laguntza:

